




(m) 2002 xagubelarri@hotmail.com

Lehiaketak

Euskadi Gaztea maketa lehiaketa. Urtero moduan, Euskadi Gaztea irrati kateak maketa lehiaketa jarri du abian. Bertan, diskorik argitaratu ez duten talde zein bakarlariek hartu ahal izango dute parte. Lanak azarotik 3a bitartean jasoko dituzte. Lehiaketako sari nagusia 3000 eurokoa izango da, eta horrez gain, entzuleen eskutik bozka gehien jasotzen dituzten hiru maketekin, talde irabazleak disko bat grabatzeko aukera izango du. Informazio gehiago eskuratu daiteke www.eitb.com webgunean.

Antzerki laburra/ Bilbo. Kafe Bar Bilbaok Antzerki Laburreko Gidoien Lehiaketa jarri du abian. Edozein egilek har dezake parte lehiaketan, eta kafe-antzerki edo formatu txikiko antzerki lanetarako gidioak aurkeztu beharko dituzte lehiakideek. Bi atal izango ditu lehiaketak: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa; eta gidioa atal bakarrera aurkeztu ahal izango dute egileek. Gidoiak jatorrizkoak, antzeztu gabeak, argitaragabeak eta

lehenago beste lehiaketaren batean saritu gabeak izango dira. Horretaz gain, beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko. Lanak irailaren 27a baino lehen bidali behar dira honako helbidera: Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo saila, Ernesto Erkoreka z/g, 48.007 Bilbo.

Narrazio laburrak/ Deba. Tene Mujika Literatur Saria jarri dute abian. Narrazioak laburrak izango dira eta gaia, berriz, librea. Lanaren hiru ale bidali behar dira udaletxera, azarotik 29a baino lehen.

Gazteak eta aisialdia/ Arrasate. Gazteak eta Aisialdia Argazki Lehiaketa antolatu du Arrasateko Udalak. Lehiakide bakoitzak hiru argazki aurkeztuko ditu gehienez, eta udaletxera bidaliko ditu. Helbidea: Udako Gazteen Zerbitzua, Udaletxea, Herriko plaza, 20.500 Arrasate.

Ekoargazkiak/ Tuterak. Argazkiek ingurumenari buruzkoak izan behar dute, eta bakarrik argazkilari ama-

teurrek har dezakete parte (profesionalek ez). Lanak aurkezteko epea bihar bukatuko da.

Erakusketak

Pintura/ Zarautz. Bihar hasi eta urriaren 11 bitartean, Pedro Oses margolariaren lanak ikusgai izango dira Zarauzko Aranburu jauregian.

Kantuketan/ Bilbo. Kantuketan euskal kantuari buruzko erakusketa, Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira museoan ikusgai izango da urriaren 13ra arte.

Txoko magikoak/ Gasteiz. Gasteizko alde zaharreko txoko bitxi eta ederrei buruzko argazki erakusketa dago ikusgai Eskoriatzako jauregian. Erakusketa hilaren 15era arte egongo da zabalik.

IVAM bilduma/ Iruñea. IVAM Valentziako Arte Modernoko Institutuari Argazkigintza IVAMeko bilduman erakusketa irailaren 29ra arte egongo da da, Iruñeko Gotorlekuko Arma aretoan. Erakusketa 100 argazki osatzen dute, eta hainbat teknika, joera eta gai jorratu dituzte;

hainbat garaitako egileen lanak bilduzten ditu.

Dantza

La Casa Bit Art Etxea II/ Donostia. Bihar eta etzi, Egiako Kultur Etxean La Casa Bit Art Etxea II jaialdia egingo dute, A Deshoras taldeak antolatuta. Bertan, dantza garaikidea eta hip hopa ikasteko aukera izango da. Ikastaro horiei buruzko informazioa jaso nahi duenak: 607-51.05.15.

Ikastaroak

Sendabelarrak/ Bera. Berako Uxua Emakume Taldeak sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu du. Datorren larunbatean hasita, zortzi larunbatetan zehar emango dituzte eskolak. Informazioa eskuratzeko: 948-63.09.23 edo 605-74.74.16.

Argazkilaritza eta txalaparta/ Izura. Haize Berri elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte berrirako. Bata argazkilaritzari buruzkoa da, eta bestea txalapartarena. Bi ikastaldiei buruzko informazioa jaso nahi duenak telefono honetan egin dezake: 05.59.37.85.79.

Gidaritza gaitasunaren garapena/ Altsasu. Gazte elkarteetako boluntarioei zuzendutako ikastaroa da, eta irailaren 23tik 27ra bitartean egingo da Altsasuko Santo Cristo aterpean. 18 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte ikastaro honetan. Interesa dutenek 902 023040 telefono zenbakira deitu behar dute.

Gaztelekua/ Zarautz. Zarauzko Gaztelekua hainbat ikastaro antolatu ditu udazkenerako: zumezaintza astelehenera, sabel-dantza asteartetan, disc-jockey teknika ostegunetan, eta arnasketa-erlaxazio teknikak ostiralean. Guztiak 19:00etatik 21:00etara egingo dira, eta iraileko azken astean hasiko dira. Denek

prezio bera dute: 90 euro (45 gazte txartela aurkeztuz gero). Izena ematea hilaren 20an bukatuko da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko Gaztelekura hurbildu behar duzue (Zigordia kalea 34) edo 943-894120 telefonora deitu.

Bestelakoak

Jai alternatiboak/ Bergara. Bergarako San Martin jaiak direla eta, txosna batzordeak egitarau alternatiboa prestatu du. Larunbatean, esate baterako, gazte poteoa egingo dute 12:00etan, Pol-Poletik abiatuta, eta jarraian bazkaria egingo dute Munibe plazako txosnan. Igandean, berriz, Kale Antzerkia izango da Interruputus taldearen eskutik, 19:30ean. Horrez gain, ostiralean, larunbatean eta igandean kontzertuak izango dira gaztetxean.

Jaiak/ Udondo. Leioako Udondo gaztetxeak egitarau berezia prestatu du egunotarako, auzoko jaiak direla eta. Bihar, *futbito patxanga* batekin hasiko dute arratsaldea, 19:00etan, 23:00etan kalejira egingo dute auzoan eta, eta jarraian kontzertua. Larunbatean, goizetik muralak pintatzeari ekino diote, eguerdian herri bazkaria egingo dute eta, 18:00etan, Santurtziko La Kelotik etorritako ipuin kontalariak saioa eskainiko dute. Igandean, 20:00etan, txokolatada eta zinema saioa izango dira (*Top Secret* filma), eta horrez gain hainbat joku eta jolas.

Deialdiak

Koadrila Eguna/ Zarautz. Koadrila eguna urriaren 26an egingo da, baina hasi dira hura prestatzen. Gaztelekua bilerarako deia egin du irailaren 17rako. Bilera 20:00etan egingo da. Bilerara joan ezin duenarentzat helbide elektroniko bat jarri dute eskura: koadrilaeguna@yahoo.es

LIBURU GOMENDIOA

Tigre ehizan

■ Aingeru Epaltza

Aingeru Epaltzak idatzitako *Tigre ehizan* liburua asko gustatu zitzaidan. Aspaldi irakurri nuen arren, liburu osoan zehar mantendu nuen jakinminaren, eta pixkanaka gehitzen joan zitzaidan beldurraren sentsazioa gogoan ditut oraindik. Liburu honetan, Aingeruk Gerrate Zibilaren ondorioz familia euskaldun batek bizi izan zuen egoera, eta konkretuki egun bakar batean jazo ziren gertakariak, modu argi eta atsegin batez azaltzen ditu. Aipatu familiako kide gehienak (Martintxoren aitona, amona, izebak, osabak, lehengusua, ama, arreba eta Martintxo bera) La

Anabel Arraizaren tik

Aktorea eta abeslaria



purdin bizi dira, eta aita Ameriketara lanean ari da. Espaziora dagokionez, aita eta semea elkarrengandik oso urrun di-

ren arren, irakurleak pentsamenduan oso hurbil somatzen dit; hala nola, 1944ko abuztuaren 6ko gauean bi pertsonaiek amets bertsua izaten dutela dakigu, zein izan den ez jakin arren, eta hurrengo eguneko gertakari guztiak azaltzen ditu idazleak horren bidez. Aitarene eta semearen istorioek, punturen batean modu tragiko batez topo egingen dutela uste dugun arren, ezin dugu asmatu nola bukatuko diren. Bi pertsonaiek tigre ehizan dabiltza, tigreak mehatxu bat suposatzen baitu; aitzak piztia hil nahi du bere lankide bat jan duelako eta semeak, berriz, beren zanpatzailean tankea (naziena) lehertu nahi du.